

EUSKALKIAK *Ezagutzen al dituzue?*



MATERIALA BEGIRALEENTZAT

16 urtetik gorako gazteekin erabiltzeko



[Aitortu-partekatu berdin](#)
Eibar, 2019

Badihardugu Elkarte

Otaola hiribidea, 1
20600 Eibar (Gipuzkoa)
943 12 17 75

NORENTZAT: Material hau begiraleentzat da, 16 urtetik gorako gazteekin lantzeko, aisialdian (udalekuak, gaztelekuak...).

HELBURUA: Aisialdian euskararen erabilera bultzatzea, ondo pasatzen duten bitartean. Hizkuntzarekin jolasteko bitartekoak eskaintzea.

GAIA: Euskalkiak. Zer euskalki ezagutzen dituzue? Desberdintasun handiak al daude euskalkien artean? Ba al duzue konplexurik edo aurreiritzirik?

ATALAK

1. Zer dakizue euskalkiei buruz?
2. Euskalkiei buruzko iritziak
3. Ulertzen al dituzue besteen euskalkiak?
4. Euskalkiak eta umorea
5. Jolasak eta sormen-lanak



1. Zer dakizue euskalkiei buruz?

- Zenbat euskalki ezagutzen dituzue?
- Zenbat euskalki daude guztira? Zein dira?



Adibideak ikusteko: [Ahotsak.eus/euskalkiak](https://ahotsak.eus/euskalkiak)

- Ea euskalkia asmatzeko gai zareten!



App-a jaitsi [hemen](#)! Ala JOKATU [webgunetik](#)!

2. Euskalkiei buruzko ikuspegiak

Gipuzkoako eta Lapurdiko adineko batzuek euskalkiei buruz duten iritzia jasotzen duen **BIDEO HAU** ikusi, eta ondoren komentatu:

Euskalkiak



- Bideoan agertzen direnentzat nongoak dira euskalki onenak? Nongoak dira eurak? Garbi hitz egiten al dute?
- Euskalkiren bat erabiltzen baduzue, nolakoa iruditzen zaizue? Gustatzen al zaizue?
- Zuentzat nongoa da euskalki 'onena', 'politena'? Eta 'itsusiena'? Zergatik?
- Zuen ustez, nongo euskalkia da ulertzeko zailena?
- Aberasgarria al da euskalki ezberdinak egotea?

3. Ulertzen al dituzue besteen euskalkiak?

Iparraldeko zein Hegoaldeko gazteen testigantzekin osatutako **BIDEO HAU** ikusi:

Euskalkiak: ezin elkar ulertu?



- Badago ulertu ez duzuen hitzik?

Pasetan jat (pasatzen zait, gertatzen zait), iduritzen (iruditzen), nehi bozu (nahi baduzu), aittuten (ulertzen), berbetan (hitz egiten), usaian (normalean, ohituraz), erraiten (esaten), giputzak (gipuzkoarrak), apur bat (pixka bat), urtetzen jata (irteten zait), solastu (hitz egin), erran (esan)...

- Zeinen euskara egin zaizue ulertzeko zailena?
- Bizi izan al duzue antzeko esperientziarik? Kontatu!
- Aldatzen al duzue hitz egiteko modua beste toki batzuetako jendearekin?
- Zer egiten duzue elkar ulertzeko arazoak dituzuenean?
- Ba al duzue konplexurik zuen euskalkiarengatik edo euskalkirik ez izateagatik?
- Zuen ustez, euskalkiak ba al dakar herri nortasunik?

4. Euskalkiak eta umorea

Herri hizkeretan tokian tokiko euskarari naturaltasuna, informaltasuna eta grazia berezia ematen dioten hitz eta esamolde adierazkor asko erabiltzen dira. Ikusi Euskal Herriko hainbat tokitako gazteen testigantzekin osatutako **BIDEO HAU**:

Euskalkiak eta umorea



- Badago ulertu ez duzuen hitzik/esamolderik?

emendau (itzali), lepo (beteta, topera), yiya/yaitsun/kasi-kasi (ia-ia), juen/jun/fan (joan), fan binaz (joan behar naiz), kabiru! (lasai egon, ez harrotu!), goitti-beheitti/goiti-beheiti (gora eta behera), solasin (hizketan), erraiten (esaten), gehixau (gehiago), txantxikuarrak (oñatarrak), xako (zai), xat (zait), erran (esan), prefosta (zalantzarik gabe), haboro (gehiago), deus (ezer), txandagaz (txandarekin) ...

- Esan zuen euskalkiko —eta beste euskalki batzuetako— hitz eta esamolde bereziak. Zein dira grazia egiten dizueten hitzak?
- Ba al duzue imitaziorik egiteko joerarik? Ekin ba!
- Zuen ustez, argi al dago umorearen eta isekaren arteko marra?

5. Jolasak eta sormen-lanak

JOLASTU

Telefono matxuratuaren jolasa

Biribilean jarri, lurrean eserita. Batek esaldi bat esango dio aldamenekoari, belarrira. Zer? Nahi duena. Nola? Azkar eta ondo ahoskatu gabe. Eta esaldia entzun duenak gauza bera egingo du: ulertu duena ondokoari belarrira esan (ulertu ez duena asmatu egin dezake). Azkenengoak ahoz gora esango du ulertu duena, eta lehenengoak, berriz, hasierako esaldia zein zen.



TXISTEAK KONTATU

Txistek kontatuko dituzte, herri hizkeran. Nork bere euskalkian egin dezake, edo beste edozein euskalkiren kutsua ere eman diezaiokete. **Txiste maratoia** egingo dute. Ahal dela, denek kontatuko dute txisteren bat. Ea denen artean zenbat txiste kontatzeko gai diren! Ez badira erraz animatzen, aukera bat: bi taldetan banatzea eta txistek txandaka kontatzea.



BERTSOAK ASMATU

Binaka edo hirunaka ipini, eta bertsoak asmatuko dituzte, herriko euskalkian edo beste euskalkiren batean. Hainbat euskalkitako hitzak erabiliz ere egin daiteke.

Gaia: librea. Umore ukitua baldin badute, askoz hobeto!

- Doinua eta neurria aukeratu
- Gaia eta kontatu nahi dena zehaztu
- Bertsoak osatu, azken puntutik hasita...
Arbel digitala erabil daiteke
- Doinua aukeratu. Ikus doinutegia.
- Bertsoa kantatu!



Mikrofonoa ez da beharrezkoa, baina jokoan eman dezake!

ABESTIAK IKASI



Taldetxoetan banatu (3-4 pertsona), eta talde bakoitzak euskalkian kantatutako abesti bat aukeratuko du. Letra bere egingo du (aurkitu eta ikasi), entseatu eta kantatu!

KARAOKEA antolatu daiteke!

Adibide batzuk:

- Ain1: [Gaban arnasa](#)
- Tapia eta Leturia: [Karmentu](#)
- Urgabe: [Ainhoa](#)
- Gatibu: [Ez naizu epaitu](#)
- Pantxoa eta Peio: [Urtxintxak](#)
- Erramun Martikorena: [Xorier mintzo zen](#)
- Pier Paul Berzaiz: [Baratze bat](#)
- Gozategi: [Emoistazu muxutxue](#)
- The Uskis: [Katuek bezala](#)
- Gatibu: [Euritan dantzan](#)
- Amaia Zubiria: [Bertsuak jarri dizkat](#)
- Gatibu: [Maitte](#)
- Niko Etxart eta A. Duhalde: [Euskal Rock and Roll](#)
- Gatibu: [Urepele](#)
- Su ta gar: [Eguen bat](#)
- Urgabe: [Lamie](#)
- Gatibu: [Bizitzen badakit](#)
- Xabier Lete: [Gizon arruntaren koplak](#)
- Oskorri: [Markoxen txerrixe](#)
- Benito Lertxundi: [Baiaeren bertsoak](#)
- Oskorri: [Katuen testamentue](#)



ABESTIEN BERTSIOAK EGIN

Abestien bertsioak ere egin daitezke. Abesti bat aukeratu, eta bertsio umoretsua egin, herri hizkeran. Letra berria asmatu, ikasi, entseatu... eta prest dagoenean, kantatu!

ADIBIDEAK. Ikus Gontzal Mendibilek kantatzen duen [Bagare](#) abestiaren [bertsio rockeroa](#). Hori bai, jatorrizko abestiak ez dauka euskaraz izan beharrik. Ikus: MP5 taldearen '[Bizikletia kandau](#)', Zesuma taldearen '[Maria Jesus](#)', Ingoaldeu taldearen '[Buelta bat eta etxera](#)' edo Mister Euskaldunen '[Txuleta sagardo](#)'.



Inspirazio-iturri moduan, Wazemank:

JATORRIZKOA

- [Korrika \(Egan\)](#)
- [Ai Anselma \(Joselu anaiak\)](#)
- [No hay tregua \(Barrikada\)](#)
- [Arratsalde honetan \(Sorotan Bele\)](#)
- [Kupela \(Epelde ta Larrañaga\)](#)



BERTSIOA

- [Kurrinka](#)
- [Ai ze pelma](#)
- [Selektibidad](#)
- [Goizeko bostetan](#)
- [Aldeintzak hemendik](#)

BIDEOAK SORTU

1. **LIPDUB bat egin daiteke!** Euskalkian kantatutako abesti guztien artean gehien gustatzen zaiena aukeratu, eta guztiek batera lipdub bat egingo dute. Lipdub-a dena segidan grabatzen da, eta ez dauka edizio-lanik.

Adibiderako, ikusi Seguran egin zutena: [Gizon arruntaren koplak](#)



2. Euskalkietako hitz eta esamoldeekin bideo bat osa dezakete. Euskalkia bizirik dagoen herrietan bertako euskalkia erabiltzea litzateke politena. Gazteek bideoan (poltsikoko telefonoarekin) graba ditzakete euren buruak, hitz horiek esaten. Eta ondoren, sare sozialetan zabaldu!


Ikus [Ondarruko berbak](#) bideoa:



ANTZEZTU

Antzerkia egin daiteke, herri hizkerak gaitzat hartuta. Gazteak talde txikietan jarriko dira, eta talde bakoitzak umorezko esketx labur bat prestatuko du.

Adibidea: *bizkaitar bat eta gipuzkoar bat, elkar ulertu ezinik.*



Esketx bakoitza ikusi eta berehala, galdera hauxe egingo dute: pertsonaiek lortu al dute elkar ulertzea? Erantzuna ezezkoa baldin bada, publikoak egoera konpontzeko proposamenak egingo ditu, eta segidan bigarrenaz antzeztuko dute, baina proposatutako aldaketak sartuko dituzte (modu inprobisatuan).

Beste aukera bat: Gazte hiztegiko hitz edo esamolde bat aukeratzea, eta hori hartzea ardatz moduan umorezko esketxa egiteko.



*Zer ikasi dut
euskalkiei buruz?*

